

1. BALOREZKO PROPOSAMENA

Gazteak garenez, gauza asko gustuko ditugu, eta horietako bat festetara joatea da, horregatik, festen informazioa beste gazteen esku jartzea gustatuko litzaiguke. Web orrialde honekin, errazagoa da gustuko jaiak non eta noiz dauden jakitea, festa horietara nola heltzea (garraio ezberdinekin: trena, autobusa..) eta laguntzazko mugikor zenbakiak eskuragarri izatea ahalbidetzen dugu. Gure balioa, kualitatiboa da, gure enpresak ez duelako etekinetan garrantzia ipintzen, bezeroen onuran baizik. Web orrialde erakargarria sortu dugu, gazteen arreta bilatzeko eta ahoz aho zabaltzen joan dezan.

Bezeroak ez digu ezer ordaindu beharko eta hori erakargarriagoa da, bezeroak zor digun gauza bakarra arreta eta gure zerbitzua aurrera joan dezan sostengua da. Lehiakideengatik bereizten gaituen ezaugarri garrantzitsuenetariko bat, berritasuna da, inoiz asetu ez den beharrizan bat josi dugulako. Beste ezaugarri bat lana erraztea da, gazteei festen informazioa jasotzea errazten diegulako, eta honekin batera eskuragarritasuna eskaintzen dugu, hau da, sortutako web orrialdea mugikorrerako aplikazio bat sortuz gazteek informazioa errazago lortu dezaten. Eskaintzen dugun beste ezaugarrietako bat web orrialdearen erabilerraztasuna da, orrialde honetan argi geratzen delako nondik nora ibili behar zaren, hau da, gauzak oso argi agertzen dira eta dinamikoki erabili daiteke.